



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

# I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15  
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

## INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

Hiri bazterreko paisaietara  
hurbilketa teorikoa

*M. Uriarte*

489-494 or.  
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.67>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



## Hiri bazterreko paisaietara hurbilketa teorikoa.

Uriarte, M.

*Arkitektura Saila, EHU-UPV*  
*maider.uriarte@ehu.es*

### **Laburpena**

Artikulu honetan doktore tesirako egindako literatura berrikuspenaren laburpen sintetiko bat aurkezten da. Ikerketak hiri bazterreko paisaiak jorratzen ditu eta hauek ulertu ahal izateko hura osatzen duten hiru kontzeptuen inguruko hainbat teoria lantzen dira hemen: paisaia eta hiria, eta azken honen eratorria den hiri-ertza. Orokorrean, Paisaia eraikuntza gisa enfokatzen da, eta hiria aldiz, geruza anitzetan egituratua den eta lurralde zein mundu mailan hedatu den fenomeno gisa. Hiri ertza berriz, lerro izatetik eremu izatera pasa egin dela kontsideratzen da, eta hortaz berezko paisaia tipologia adierazten duela onartzen da.

Hitz gakoak: paisaia, paisaia izaera, konstruksionismoa, interpretazioa, urbanizazio planetarioa, Bilboaldea

### **Abstract**

*This paper is a synthetic summary of the literature review elaborated for the doctoral thesis. The research theme is the urban fringe landscape and an analysis is carried out in order to understand it by working on several theories about landscape, the city, and the derivative concept of the urban-edge. As a general view, landscape is understood as a construction, and the city as a multi-layered concept that has grown and spread regionally and in planetary scale. The urban edge has evolved from a line to an area, and therefore represents a unique landscape typology.*

*Keywords: Landscape, landscape character, constructionism, interpretation, planetary urbanization, metropolitan Bilbao.*

### **1. Eremu baztertuetako paisaiak.**

Artikulu honi hasiera emango zaio bi galdera oso orokor planteatuz; ikergaiaren nondik norakoak adierazteko asmoz, eta baita ekarpen honek, duen tonu teorikoa adierazteko ere: batetik, zer da paisaia? bestetik, zer da hiri ertza edo non bukatzen da hiria?

Paisaiaren inguruan hainbatetan sortzen den eztabaida da haren definizio gabeziaren edo esanahi jorritasunaren ingurukoa. Hura lantzen duten diziplinak ugariak direlako hainbat modutan marratzen dira paisaiaren mugak, eragin esparruak eta trataerak. Europar testuinguruan baina, 2000. urtetik tresna bat dugu definizio aski egoki bat ezartzen duena, Europako Paisaiaren hitzarmenarena, hain zuzen ere. Bertan kontzeptuaren izaera emankorra mugatu gabe haren bi aspektu oso garrantzitsu nabarmentzen direla esan daiteke. Batetik, paisaia gizartearen hautematearen arabera dela azaltzen da, eta bestetik, edozein lurraldek, edozein eremuk paisaia izaera duela aitortzen da, baita ustez eremu hiritartu, degradatu eta kutsatuen kasuetan ere (Europe, 2000).

Bigarren galderari dagokionez, arlo akademikoak (eta gutxika arlo praktikoak edo profesionalak ere) erantzunak eskaintzen ditu badira hainbat urte. Hau da, hiriak ez duela ertzik eta ezin dela isolatu hiria dena eta hiria ez dena; ezin berezitu daitezkeela eremu landatarra eta eremu hiritarra, alegia (Schmid, 2005). Beste modu batean esanda, hiria lurralde osoan zehar barreiatu egin dela, mundu mailako eragin esparrua hartu duen arte (Brenner & Schmid, 2011).

Bi erantzun sorta horiek, zenbait inplikazio edo eragin dituzte eta hemen aurkezten den ikerketaren abiapuntu gisa erabili egin dira. Hasteko paisaiari dagokionez, aipatu hitzarmenak zera aurreratzen du: alde batetik, jendartearen parte-hartzea lurraldearen ulerkeran eta hautematean, eta ondorioz, subjektibitate soziokultural baten presentzia onartzen da paisaia bat identifikatu, definitu eta ulertu ahal izateko. Bestalde, edozein lurralderi paisaia nolakotasuna

eta izaera aitortzen zaionean, horrek paisaiaren kontzeptualizazio arruntengan eragin nabarmen bat du. Hots, ustez kulturari, edertasunari eta natura zaindu bati lotzen zaion paisaiaren ideia eraldatu egiten da eremu ez hain eder, ez hain zaindu eta kulturalki ustez baliogabeak ere onartuz.

Bestetik, Hiriaren mugagabetasunari dagokionez, globalizazioaren eta planetarizazioaren eraginez, gizakien ehuneko handiena hirietan bizi dela ere kontutan hartuta, hiriaren eskaerek planetaren edozein txokotan eragiteko eta moldatzeko indarra dutela onartzen da. Horren ondorioz, naturaren existentzia bera ere ezbaian jartzen da, hiriaren barreiatzearen ondorioz sortu diren eraldaketak direla eta (Brenner & Schmid, 2011). Honek guztiak gogora ekartzen du klima aldaketa, eta segidan, hain ezagun bilakatu den antropozenoaren garaia ere, zeinak gizakiaren eraldaketek geologia-aro berri bat sortzeko izan duen ahalmena adierazten eta baieztatzen duen (Zalasiewicz, Williams, Haywood, & Ellis, 2011). Hori naturari dagokionez, baina bestalde, hiriaren barreiatze unibertsalak edo planetarioak, globalizazioarekin batera, kulturen eta eremuen homogeneizazio bat dakarrela ere esan daiteke. Hots, suposa daiteke hiritartuak diren eremu guztiak direla antzekoak, kultura batetik bestera bereiztezinak, denentzako ulergarriak edo egokitzapen kulturalik eskatzen ez dutenak (Koolhaas, 2006). Hau da, ondoriozta daiteke hiriaren mugagabetasunak paisaia homogeneoak sortzen dituela ekonomia globalizatuaren eraginez.

Hori horrela, ikerketa honek, lurralde orok duen balio paisajistikoaren ideia, hiritartua den lurralde horri aplikatzen dio ikerketa abiapuntu bat sortzeko. Batetik, hein batean, homogeneizazio unibertsal horren inguruan hausnarketa bat egitea beharrezkoa ikusten delako, eta, bestetik, Europako Hitzarmenak ezartzen duen testuinguru horren arabera, kontraesan bat identifikatu egin delako. Nola izan daitezke homogeneoak paisaia guztiak, oraindik orain gizarteak eta herrialdeak kulturalki ezberdinak baldin badira eta geografikoki ere tokiak ezaugarri ezberdinak baldin badituzte, besteak beste, klima aldaketaren balizko ondorio ezberdinek erakusten dutenez edo gizarte desorekek adierazten dutenez?

Euskal Herria atlantikoan badugu hiri bazterreko paisaia paradigmatico bat, hirien inguruetako mendi magaletakoa hain zuzen ere. Honek ez du zerikusirik paisaia tipologia homogeneorekin eta globalizatuarekin lotzen den eremu zabal, lau eta dentsitate baxuan hiritartu denarekin. Izan ere, elementu geografikoen presentziak eragiten dituen eraikuntza fisiko eta kulturalak erreparatzen baldin baditugu, berezkoak diren elementu eta formak, baita bizimoduak eta esanahiak ere topatu daitezke. Kasu hau ikertu egin duen tesi baten zati bat da hemen aurkezten dena. Hortaz, abia gaitezen kontzeptuaren ulerkera orokor baten bila.

## **2. Kontzeptu baten ulertzea.**

Artikulu honetan azalduko dena, beraz, hiritartua den paisaiaren kontzeptuari egin zaion hurbilketa bat da, kontzeptuaren xehatze bat, edo hiri bazterreko paisaiaren ulermen bat. Helburua, kontzeptuaren testuinguru teoriko bat osatzea da, hura eraikitzen eta osatzen duten gai ezberdinak jorratuz, ikuspegi ezberdinetatik nola lantzen eta definitzen den ulertzeko asmoz eta ikerketa nagusiaren norabidea zehaztera bidera egin dena.

Ikerketa orokorrak paisaia hauen balioak identifikatzeko prozesu bat aurkezteko helburua du; hots, bazterreko paisaien izaera, formak, historia ezagutuz haien kualifikazio bat lortzea da asmoa. Haatik, enpatia horrek, kutsu polemiko bat izan dezakeela aitortu beharra dago, izan ere, kutsatuak eta kaltegarriak diren egoerekiko onargarritasun bat adierazi daitekeelako. Ordea, uste da, ariketa estetiko bat baino gehiago egiten dela hemen, eta, eremu hauek egunerokotasunean duten lekua eta jendartearen bizitzan duten maila sinbolikoaren eta izaerazkoaren garrantziari aitortpena egiten zaiola. Hots, paisaiaren hitzarmenak dioten bezala, giza hautemateari balioa ematen zaio, eta gainera, paisaiaren ulerkera xeheago eta osoago bat egiteko asmoarekin, haren kudeaketa koherenteago bat sustapena bilatzen da. Hasteko, baina, kontzeptuari, paisaia hiritartuari, hurbilketa teoriko bat egin zaio eta horixe da artikuluaren muina.

### 3. Hiri Bazterreko Paisaien bi aspektu: paisaia eta hiria.

Hurbilketa teoriko hau egin ahal izateko, hiri bazterreko paisaien kontzeptua osatzen duten eta haren ulermenean eragin dezaketen hainbat gai landu egin dira, horietatik eratorritako kontzeptu bat dela planteatuz. Gai horiek, hain zuzen ere, paisaia, hiria eta hiri-ertza dira. Lehenengoaren azterketak mundu ikuskera edo postura epistemologiko bat eskaintzen duen bezala, hurrengo biek egitura formalak eta garapen historikoaren aspektuak gehitzen dizkiote hiri bazterreko paisaien kontzeptuari.

#### 3.1 Paisaia

Paisaiaren hainbat definizio semantiko, ofizial eta onartuak landu egin dira hasteko. Ondoren, paisaiaren hautematea eta jakituria sortzeko dauden hiru epistemologia nagusi landu egin dira: objektibista, subjektibista eta subjektu-arteakoa. Azkeneko honi eman zaio garrantzirik handiena, izan ere, paisaiaren definizio konstruktibista bat onartu egiten baitu tesiak; hots, paisaia, eraikuntza soziokultural bezala irudikatzen da oinarrian, eta hortaz, hura ulertu ahal izateko, alderdi subjektiboak nahiz objektiboak lotuko dituen jarrera bat hobesten da. Izan ere, paisaiaren jakintza baita paisaiaren elementu formalak ere *eraikiak* dira (Swaffield, 2006).

Horren bidetik, paisaia modu konstruktibistan landu eta jorratu duten zenbait pentsalariren lana aztertu da bereziki azpimarratuz Denis Cosgrove-n (1998) ekarpena. Cosgrovek (1998) zioen paisaia mundua ikusteko modu bat zela, garai jakin batekoa eta gizarteko esparru konkretu batek sortua. Haren teoriaren baitan garrantzitsuak ziren analisi dialektikoak, eta hortaz paisaiaren agenteen izaera barnekoa edota kanpokoa bereizten zituen, baita paisaiarekiko jarrera objektibista eta subjektibista ere (Cosgrove, 1998). Teoria horretatik eratortzen da paisaia, edo lurraldea, ulertzeko baita lantzeko ere hainbat modu existitzen direnaren ideia.

Ildo konstruktibistatik jarraituta esan daiteke, paisaia irudikatu egiten dela, tradizio piktoriko eta kartografiko luzeak erakusten duen bezala. Irudikatzen duen agente horren arabera, elementu batzuk adierazten dira eta era berean ezkututzen ere (Corner, 1999); mapak izan daitezke irudikapen filtratu horien adibide garrantzitsuenetako bat. Azkenik, paisaiaren ulermenean edo hurbilketa teorikoan, paisaiaren eraikuntza bera azaltzen da, fisikoki tokian egiten dena baita kontzeptu mailan urrunetik egiten dena ere (Roger, 2007), ideologikoki izaera ezberdinak dituen (Baker, 1992; Mitchell, 2002), eta hainbat garaietan zehar lurraldeko palimpsestoak osatzen duten paisaia geruzak ezarri dituen (Corboz, 1983).

#### 3.2. Hiria eta hiri-ertza

Gai hauekiko hurbilketa hiriaren garapenaren eta egitura formalaren ikuspegitik egin da. Hala, aztertu egin dira hiria formulatzeko eta ulertzeko azken 100 urteetan sortu eta erabili egin diren hainbat termino eta hiru taldetan banatu egin dira. Batetik hirigunea geruza eta elementu ezberdinez osatua dagoela dioten ikuspegia dugu; geruza horiek hiriaren ulermen fisiko eta morfologiko bat adierazteaz gain, gizarteko eta ekonomiaren aspektu ezberdintasunak ere adierazten dituzte, hiriaren osaera konplexuaz eta forma eraikiaz harago doan ikuspegi bat eskainiz. Bi alderdien adibide gisa aipatu daitezke, Peter Marcuseren (2002) geruza anitze dituen hiriaren ikuspegia; bertan ekonomia jarduera eta gizarte perfil ezberdinak espazializatuz hiri zatikatu bat marrazten duen. Bestetik, Manuel Sola de Moralesen (1997) hazkuntza forma ezberdineko hiri-zatiez osatutako hiriaren irakurketa aipa daiteke, non garai eta ekonomia ezberdinek eragindako zati morfologiko ezberdinen prozedurak identifikatzen dituen.

Horrezaz gain, hiriaren hedakuntza landu dutenen ekarpenak ere bildu egin dira beste bi taldetan, hiriaren lurralde mailako edo mundu mailako hedapen hipotesietan banatuta. Taldekatzeko honek hiriaren beste ikuspegi bat eskaintzen du eta honen eragin esparru eta hiri-paradigma berriak aurkezten ditu. Hiriguneak gaintzen dituzten hazkuntzak dira (Garreau, 1992), lurraldean barreiatzen direnak (Indovina, 2005) edo hiria beste batzuekin lotzen dituen azpiegiturak egituratutako eremuen kontsiderazioa dakar (Ascher, 2005; Gottmann, 1957), edota

mundu mailako loturetan eta oso konkretuak diren hiri batzuetako zatiak lotzen dituzten sareak adierazten dituzte (Sassen, 2004).

Geruza anitzeko hirigunearen, eta hiri zabalduaren artean, tarteko hiriaren presentzia jorratu dutenen lana ere aipagarria izan da, eta haren inguruan dagoen lan andana ere nolabait biltzen saiatu da ikerketa. Europar testuinguruan ezagunena egin dena Alemaniako kasua oinarri duen *Zwischenstadt* kontzeptua da (Sieverts, 2003), hots tarteko hiria izenaz ezagutzen dena. Honen aurretik ordea, suburbializazio prozesuetatik hasita, hiriaren ertza, periferia eta barreiatzea hainbat modutan jorratua izan da horretarako sortu diren hainbat termino eta adiera asmatuaz batik bat testuinguru anglosaxoian eta gerraosteko urteetan: esaterako, *urban fringe* [hiri-bazterra], *rural urban fringe* [bazter rural-urbanoa], *urban fringe belt* [hiri-bazterreko gerrikoa] (Adell, 1999) eta enparauak.

Ekarpen horiek hiri-morfologiaren ikuspegitik eginak dira, baina beste ikuskera batzuek, hura arazo gisa, eta plangintzak konpontzeko elementu gisa jorratu dute (Thomas, 1990). Azken honen soluzio esanguratsuenak bi dira: gerriko edo eraztun berdearena Erresuma Batuan, eta behatzen plana Danimarkan, biak gerraosteko garaian garatuak. Lehenengo kasua izan da gehien zabaldu eta kopiatu dena, nahiz adituen artean hainbat kritika jaso dituen kasua izan sortzen duen inoren eremu erregulatu gabekoa dela eta, baita gerrikoaren ertzek berek jasaten duten presio ekonomiko eta hiri-garapenak direla eta (Edwards, 2001).

Egun, hiri-ertza modu horretan aztertzea ariketa antzua dela esan daiteke, ez soilik eremu urbanoa eta landatarra bereiztezinak direlako (Schmid, 2005), baita hiri-ertzen ordeztu hiri-bazterrak agertu egin direlako; hots, eremu lineal eta mugatzaile baten ordeztu, berezko presentzia duen eremu zabal bat dugulako (Sieverts, 2003). Izaera propioa duen eremua da hau (Shoard, 2000), hots, ez hiri eta ez landa dena, nahasketa bat baizik, eta paisaia bilakatu da (Meeus & Gulinck, 2008; Sieverts, 2003). Eredu hau modelizatzeko lorategi-hiriaren kontzeptua berreskuratu egin dute zenbaitzuek (Meeus & Gulinck, 2008; Schumacher, Koch, & Ruegg, 2004) edo berriak ere sortu dituzte aipatu *Zwischenstadt*a (Sieverts, 2003) kasu. Azken honek eremuarekiko hurbilketa eta jarrera enpatiko bat aldarrikatzen du hura modu zabal eta xehean den bezala analizatu eta ulertu ahal izateko. Hartara, eremuon izaera aztertzeke eskarmentu zabala lortu dute hainbat ikerketen bidezko analisi metodologia bat garatuz (Bölling, 2005). Metodologia honek, lurraldearen alderdi morfologiko eta aspektu eraikiaz gain, elementu kultural eta ukiezinak ere lantzen ditu. Hala, ustez hain homoginoa den eremuan ere balioak eta nolakotasunak aurkitzeke asmoari erantzuna ematen zaio.

#### 4. Ondorioak

Artikuluaz azaldu da paisaiaren ulermenean eta definizioan gizakiaren hautemateak duen garrantzia, honek lurraldearekiko duen jarrera, baita hura ulertzeke dituen moduak ere. Hots, paisaia kontzeptu eraiki bat bezala jorratzen da, historian zehar irudikatua eta fisikoki zein kontzeptualki egituratu egin dena. Bestetik hiria landu egin da bi ikuspegi nagusietatik: haren egitura morfologikoaren geruza anitzak kontsideratuz, batetik, eta, bestetik, lurralde eta mundu mailako hedapen eskalaren aldetik. Hiri-ertzari ere heldu zaio, honen zabaltzeak suposatzen duen ikuspegi paisajistikoaren gailentzea nabarmenduz; hots, lerro bat izatetik, izaera bereziko eremua bihurtu den arteko garapenak eragin duen ikuspegi aldaketa nabarmendu da. Hiri Bazterreko Paisaia, paisaia eta hiri fenomenoaren eratorri gisa tratatzen baldin badugu, esan daiteke, eta hasieran zehaztu den hipotesiei jarraituz, hauek ere paisaia eraikiak direla, eta hiri direnetik ere, geruza anitzekoak eta pieza anitzez osatuak direla. Hortaz, nola eraiki dira? Zeinek eraiki ditu? Nola irudikatu dira paisaiok? Zein elementuk osatzen dituzte? Zein izan da haien garapena?

#### 5. Hiri Bazterreko Paisaien eraikuntzaren interpretazioa

Esan bezala, hemen aurkezten denak ikerketaren ibilbide zabalago bat osatzen du, eta ikuspegi konstruktibista bat erabiliz paisaia horien izaera kasu kasu ulertu ahal izateko metodo baten proposamena egiten da bertan. Horrenbestez, lan honen ondoren datorren erronka, hiri bazterreko paisaien izaera ulertzeko modu baten bilaketa da.

Abian den ikerketak hori bera egiten du, paisaia kasu konkretu bat erabiliz, Bilboaldeko mendietako hiri bazterreko paisaiak, alegia. Kasu hau paradigmatikotzat jotzen da batik batik euskal herri atlantikoko geografian duen presentzia eta egunerokotasunean duen eragina dela eta. Bestalde, paisaia kasu konkretu horren azterketak ustez homogeenak den paisaia tipologiari berezkitasuna eta kasuistika zehatzen berezitasunarekin ekarpena egiten dio.

Nolanahi ere, ikerketak ez du Bilboaldeko paisaiaren deskribapen soila bilatzen, are gehiago, unibertsaltasunaren bidetik, edozein bazterreko paisaia interpretatu ahal izateko metodo bat proposatzen du. Metodo honen oinarrian, aipatu paisaiaren teoria konstruktibistak daude eta lau aspektu nagusi lantzea proposatzen du: lurraldearen ulermena, lurraldearen irudikapenak, agente eragileak eta paisaiaren eraikuntza ukiezin eta eraikiak. Horrezaz gain, paisaiok eraiki dituzten ikuspegi anitzen existentzia onartzeko helburua du, eta hortaz agente bat baino gehiagoren ikuskera, horien ulermenak eta irudikapenak eta eragindako eraikuntzak aintzat hartzen dituen interpretazio metodo bat proposatzen da hiri bazterreko paisaien berezkitasunak identifikatzeko eta irudikapen berriak lortu ahal izateko.

## 6. Erreferentziak

- Adell, G. (1999). *Theories and models of the peri-urban interface: a changing conceptual landscape*. London: Development Planning Unit UCL. [<http://discovery.ucl.ac.uk/43/>]
- Ascher, F. (2005): Metapolis: a third modern urban revolution. Changes in Urban Scale and Shape in France. In L. Bölling & T. Sieverts (arg.), *Mitten am Rand. Auf dem Weg von der Vorstadt über die Zwischenstadt zur Regionalen Stadtlandschaft* (Vol. 1). Verlag. Müller & Busman, 24–38.
- Baker, A. R. H. (1992): Introduction: on ideology and landscape. In A. R. H. Baker eta G. Biger (arg.), *Ideology and Landscape in Historical Perspective*, Cambridge University Press, New York, 1–14.
- Bölling, L. (2005): *Bilder einer Zwischenstadt*. Müller Busmann, Wuppertal:.
- Brenner, N., & Schmid, C. (2011): Planetary Urbanisation. In *Urban Constellations*. jovis Verlag, 10–13.
- Corboz, A. (1983), The Land as Palimpsest. *Diogenes*, 31, 12–34.
- Corner, J. (1999): The Agency of Mapping: Speculation, Critique and Invention. In D. Cosgrove (arg.), *Mappings*, Reaktion Books, London, 213-300
- Cosgrove, D. E. (1998): *Social formation and symbolic landscape* (2. ed). Reaktion Books, Madison, Wi.
- De Solà-Morales, M. (1997): *Las Formas de Crecimiento Urbano*. Univ. Politèc. de Catalunya.
- Edwards, M. (2001), Sacred cow or sacrificial lamb? Will London's Green Belt have to go? *City: Analysis of Urban Trends, Culture, Theory, Policy, Action*, 4:1, 106–112.
- Europe, C. O. (2000): European landscape convention. In *Report and Convention*.
- Fishman, R. (1987): *Bourgeois Utopias: The Rise and Fall of Suburbia*. Basic Books.
- Garreau, J. (1992): *Edge city: life on the new frontier*, Anchor Books, New York.
- Gottmann, J. (1957), Megalopolis or the Urbanization of the Northeastern Seaboard. *Economic Geography*, 33(3), 189.
- Indovina, F. (2005): La ciudad difusa. In À. M. Ramos (arg.), *Lo Urbano en 20 autores contemporáneos*, Universidad Politècnica de Catalunya, 49-59.
- Koolhaas, R. (2006): *La ciudad genérica*. Gustavo Gili, Barcelona.
- Marcuse, P. (2002), The Layered City. In P. Madsen eta R. Plunz (arg.), *The Urban Lifeworld: Formation, , perception, representation*, Routledge, London, 94-114.
- Meeus, S. J., & Gulink, H. (2008), Semi-Urban Areas in Landscape Research: A Review. *Living Rev. Landscape Res.*, 2. [<http://landscaperesearch.livingreviews.org/Articles/Irlr-2008-3/>]

- Mitchell, W. J. T. (2002): *Landscape and Power* (2 ed). University of Chicago Press.
- Roger, A. (2007): *Breve Tratado del Paisaje*. (J. Maderuelo, arg.). Biblioteca Nueva, Madrid.
- Sassen, S. (2004), The Global City: Introducing a Concept, *Brown Journal of World Affairs*, 11, 27.
- Schumacher, M., Koch, M., & Ruegg, J. (2004), The Zurich Limmattal Steps of a servant valley towards emancipation. In G. Dubois-Taine (arg.), *European Cities. From Helsinki to Nicosia. Insights on Outskirts. Eleven case studies & Synthesis*.
- Shoard, M. (2000), Edgelands of Promise. *Landscapes*, 1(2), 74–93.
- Schmid, C. (2005): Theory. In R. Diener, J. Herzog, M. Meili, & P. de Meuron (arg.), *Switzerland-An Urban Portrait. Introduction* (Vols. 1-3, Vol. 1.). Birkhäuser, Basel ; Boston ; Berlin, 163–222.
- Sieverts, T. (2003): *Cities without cities : an interpretation of the Zwischenstadt*, Spon Press, London.
- Swaffield, S. R. (2006), Theory and Critique in Landscape Architecture. *Journal of Landscape Architecture*, 1(1), 22–29.
- Thomas, D. (1990), The Edge of the City. *Transactions of the Institute of British Geographers*, 15(2), 131.
- Zalasiewicz, J., Williams, M., Haywood, A., & Ellis, M. (2011), The Anthropocene: a new epoch of geological time? *Philosophical Transactions of the Royal Society A: Mathematical, Physical and Engineering Sciences*, 369(1938), 835–841.

## 7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau EHuko Euskara errektoreordetzak eskaintzen duen Euskarazko Tesia Egiteko Ikerketa Pertsonala Prestatzeko laguntzari esker aurrera eraman ahal izan da, baita Londresen (EB) eta Munichen (Alemania) egonaldiak egiteko lortu diren EHuko bi mugikortasun diru-laguntzei esker ere. Bestalde nire tesi zuzendari diren Marte Mujika doktorea (Arkitektura Saila, EHU) eta Sören Schöbel katedraduna (LAREG, TU München) eskertu nahiko nituzke.